

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

#### Hasierako onespina ematea Lanturri zentro soziokulturalean jarduerak egiteko alokairuaren prezio publikoen ordenantzari

Udalbatzak, 2024ko urriaren 9ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespina ematea Lanturri zentro soziokulturalean jarduerak egiteko alokairuaren prezio publikoen ordenantza berriari.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, argitara ematen da hasierako onspena jaso duen zerga ordenantzaren testu osoa, eta udal bulegoetan egongo da ikusgai, interesdunek espedienteaz aztertu ahal izan dezaten eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten hogeita hamar eguneko epean, aipatutako iragarkia argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Bestalde, jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada jendaurrean dagoen bitartean, erabakia behin betiko onetsizat joko dela.

Azilu, 2024ko urriaren 10a

*Alkatea*

*IRATXE DEL BARCO MURUA*